

HEZKUNTZA JARDUERAK UNTZI MUSEOAN

BISITA GIDATUAK “Euskaldunak eta Pazifikoa. Andres urdanetaren omenez” ERAKUSKETARA.
1h - 1h 30´ . 2011ko otsaila arte. **Museoko lehen bi solairuetan**
Talde bakoitzaren beharrei egokitua.

Erakusketa honen helburua Ozeano Barean eta Asia Ekialdean izandako euskal presentziaren historia aditzera ematea da. Garapen kronologikoak XVI. mendetik, hots, deskubrimenduen garaitik gaur egun arte hartzen du. Balio historiko zein artistiko handia duten piezek osatzen dute erakusketa. Erakusketaren gaitegia zabala da: Elkano, Urdaneta, Manilako Galeoia, Filipinetako Errege Konpainia, XIX. mendeko euskal emigrazioa, XX. mendeko pilotariak Ekialdean, XXI. mendeko kooperanteak...



“Kontxako Estropaden Historia”
TAILER DIDAKTIKOA
1h - 1h 30´ . 2011ko otsaila arte, **museoko hirugarren solairu osoan.**

Kontxako estropaden historia modu dibertigarri eta parte hartzaile baten bidez ezagutzeko



parada eskaintzen digu espazio honek: zergatik sortu ziren estropadak gure kostaldean, zer nolako eboluzioa izan duen estropada honek hainbeste urtetan, erabiltzen diren ontzien eboluzioa nolakoa izan den, estrobuak egiten ikasteko aukera ere egongo da, gure kostaldeko arraunlarien jantziak probatzeko aukera eta arraunlari batek arrauna nola egiten duen simulatzeko txokotxo bat ere prestatu dugu. Estropaden inguruko kuriositateak ezagutu nahi badituzu etzazula huts egin!



“Elkano nora hoa?”. MAHAI JOLASA.
1h - 1h 30´ . 10 urtetik gorakoentzat.
Urte osoko jarduera.

Jarduera honetan Juan Sebastian Elkano eta bere bidailagun asko ezagutuko ditugu. Historiari egindako ekarpenaren analisia: mundua biribila zela egiaz-tatzearen garrantzia, Atlantikoa eta Ozeano Barearen arteko jarraipena, espezien balioa... “Euskaldunak eta Pazifikoa” erakusketa oinarritzat hartuta, mahai jolas, lamina, bideo eta espeziak ere eskuartean ditugula (intxaur moskatua, kanela...) munduaren ezagutzan hain garrantzitsua izan zen espediziora gerturatuko gara.



“Arrantza erak”. TAILERRA.
1h.-2h. 10 urtetik gorakoentzat.
Urte osoko jarduera

Arrantza egiteko dauden sistema desberdinak ezagutzeko aukera emango digu saio honek.



Azalpenen osagarri, bideo bat ikusteaz gain, parte-hartzaileek eskulana egiten dute: atunetarako "maluta" bat hain zuzen.

Arrantza arduratsuaz eta itsas-baliabideen zaintzaz ere arituko da saioa. Gainera, aurrez eskatuz gero, arrantzale batekin elkarrizketatu ahal izango zarete, belaunaldi ezberdinen arteko tailerra burutuz.

“Ondarea zer den ikasten”. MINTEGIA.
1h - 1h 30´ . 14 urtetik gorakoentzat.
Urte osoko jarduera

Itsasoarekin lotutako ondarea gorde eta zaintzea da gure Museoaren zeregina, ikertu eta hedatzearekin batera. Saio honen bidez, Untzi Museoko funtsetako eta bildumako ondare-balioko piezak jaso ohi duen trataera azaldu eta aztertuko dugu, bere jatorria, egoera, zainketa eta kokapenaren zerranolakoak aztertuz eta ariketa partehartzaileen bidez ulertaraziz

HEZKUNTZA JARDUERAK UNTZI MUSEOAN

“Donostia, itsas hiria”.
IBILBIDE HISTORIKO-
LITERARIOA

1h 30´ - 2 h.
14 urtetik gorakoentzat
Urte osoko jarduera.



Itsasoari loturiko historia luzea dauka Donostiak. XIX. mendean turismoari begira jarri bazen ere, ordurarte itsas merkataritza, ontzigintza, arrantza eta aktibitate kortsarioak izan zituen ardatz hiriak.

Gudaloste ingeles-portugaldarraren erasoak 1813an eragindako kaltea handia izan bazen ere, Donostiak gordetzen ditu, bere itsas historiari lotuta, oraindik ere uki daitezkeen ondare materialak. Horiexek deskubrituko ditugu ibilbide honetan.



Ibilbidea Bretxa inguruan hasi ohi dugu. Bertan harresien aztarnak aztertu, ikusi, hiriaren sorrerari eta garapenari buruz mintzatzen gara eta ondoren, hiriko Parte Zaharrean barrena, itsas historiarekin lotura duten hainbat espazio bisitatzen ditugu. Ostean moilan zehar jarraituko dugu eta Donostian aintzina egon zen Itsas-Kontsulatuaren Dorretxean amaituko da ibilbidea (egun Untzi Museoaren etxea den honetan).



“Santa Klara uhartea, uharte ezezaguna”.
IBILBIDE HISTORIKOA
UHARTEAN.

Ekainaren 1etatik-irailaren 9ra*

Gaur egun Santa Klara uhartea Donostiako paisaiaren elementu garrantzitsu bat bada ere gutxi ezagutzen dute sakonki uhartea. Garai batean espazio ezatsegina izan zen uhartea, gaur egun altxor natural, paisajistiko eta historikoa bihurtu zaigu.



Uhartera egingo dugun bisitaldi honek aukera emango digu ondare naturalaz gozatzeko, paisaiaren berezitasunak behatzeko, flora, fauna... Ondare kulturalera ere gerturatuko gara eta historia, kondairak, tradizioak eta mantentzen diren arkeologia aztarnak eta itsasargia ezagutzeko aukera izango dugu.



Proposatzen den ibilbide honek denboran bidaiatzeko aukera ematen du: uhartea desterratu eta koarentenan jartzen zituzten pertsonen bazterra, hiriaren defentsarako kokaleku estrategikoa... Farozain, tabernai eta ontzijaheen istorio interesgarriak ere entzungo ditugu. Flysch-aren jarraipen bezala uhartearen formakuntza geologikoa ere aztertu ahal izango dugu eta zorte piska batekin, *podarcis hispanica sebastiani* sugandila agurtuko dugu.

*Ibilbide hau baldintzatuta egon daiteke irlara eramango gaituen ontzi-enpresak hartutako erabakien ondorioz (eguraldiaren eta jende kopuruaren arabera erabakiak). Galdetu prezioa.

ERRESERBAK EGITEKO

Museoaren jardueretan partehartzeko, beharrezkoa da alde aurretik bisitaren ordua eta eguna zehaztea eta erreserbatzea.



Erreserbak telefonoz (943-430051), faxez (943-431115) zein e-mailez (untzimuseoa3@gipuzkoa.net) egin daitezke.

Museoan egiten diren jardueretan parte hartzeko 1€ ordaindu beharko du taldekide bakoitzak.

Museo honetan ezin da erre, jan eta edan. Piezak ukitzea eta argazkiak ateratzea ere debekatuta dago, dauzkagun piezak kaltetuak suertatu baitaitezke eta autoreek jabetza edo eta egile eskubideak erreklamatu ditzaketelako. Ideia hau taldeko bisitariei aurrez komunikatzea funtsezkoa da.

Museoko heziketa programen edukinak zuek dituzuen beharretara egokitu daitezke. Museoko hezitzailearekin elkarrizketa bat mantentzea komeni da bisitan etorri aurretik. Museoak jardueretan behar bezalako helburuak lor daitezten, 20 pertsonako taldeak baino handiagoak ez ditu gomendatzen.

UNTZI MUSEOA
Kaiako pasealekua 24. 20.003.
DONOSTIA.
Tlf:943-430051. Faxa: 943-431115
untzimuseoa3@gipuzkoa.net (Amagoia)



UNTZI MUSEOA

UNTZI MUSEOA

UNTZI MUSEOA